

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
HERRITARREN GIZARTE ONGIZATEA, KULTURA, KIROLA, EUSKARA ETA HEZKUNTZA ARLOEI
BURUZKO MAHAIAREN 2. BILERA**

Bertaratutakoen zerrenda:

- Hezkuntza eta euskara:
 - o Olatz Sanz (Herri hezitzaileak)
 - o Idoia Larrañaga (Herri hezitzaileak)
 - o Aintzane (Ipintza institutua)
 - o Nerea Alzelai (Euskaltegia)
 - o Saioa Garitano (Jardun elkarte)
 - o Aitzol Mugika (Mariaren Lagundia ikastetxea)
 - o Josu Agirreurreta (Aspace)
- Kultura
 - o Nerea Olaskoaga (Bustinzaleak elkarte)
 - o Maitane Arrizabaleta (Jardun elkarte)
 - o Enrique Txurruka (Musika banda)
 - o Valen Muñoz (Begarako orfeoia)
 - o Amaia Otxoa (Begarako orfeoia)
- Gizartea:
 - o Itziar Usandizaga (Duintasuna)
 - o Xabier Casavellas (Duintasuna)
 - o Mertxe (Katxalin elkarte)
 - o Maite (Katxalin elkarte)
 - o Isabel (Katxalin elkarte)
- Kirola:
 - o Aitor Egaña (Pol pol mendi taldea)
 - o Marian Mellado (BKE Saskibaloia)
 - o David Martinez (Palmerakuak)
 - o Aritz Bikuña (Aspace)
 - o Maite Guridi (Aspace)
 - o Gorka Ugalde (BKE Eskubaloia)
- Aholkularitza taldea:
 - o Rosa Aurkia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
 - o Oihane Arruabarrena (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
 - o Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratatutako aholkularitza-entresak "Begara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan orain arte emandako urratsak azaldu ondoren, orain arteko mahaietan (udaleko gaikako batzordeetan nahiz herritarren gaikako mahaietan) jasotako ekarpenetan oinarrituz diseinatu berri duen Plan Estrategiko Jasangarriaren 1.zirriborroa aurkeztu du eta ale bana banatu die gerturatutakoei.

Saioren lehen zatian gizarte ongizatea, kultura, kirola, euskara eta hezkuntza arloei lotutako gaiekin erlazioa duten helburu estrategikoak aztertu eta lantzeko aukera ireki da. Honela, gerturatutakoak jarduera-lerro bakoitzaren baitan jasotako ekintzen inguruko ekarpenak egin dituzte eta horien artean eztabaidatzeko aukera izan dute.

Planaren gaineko ekarpenak jaso aurretik, kultur arloko elkarleen ordezkariak honakoa adierazi dute: gizarte arloko gaiekin ez duela zerikusirik kulturak (nahiz eta bileran zehar bi arloen arteko sinergien adibideak jaso diren) eta, bilerak, desberdinduta egon beharko lirakeela, batez ere, arlo bakoitzari ordu t'erdiko saioa eskaini ahal izateko, bestela denboraren erdia soilik izaten baita. Horrez gain, gizarte arloan ezer esanguratsurik aportatzeko gai ez dute ikusi euren burua, nahiz eta ondoren ekarpen ugari aipatu eta eztabaidatu.

Ekintza planean 1.saioan egindako ekarpenak barneratuta dauden ala ez argi ez dutela adierazi dute zenbait eragilek. Izan ere, ekintzak oso orokorrak direla aipatu dute, "topikoak" direla, eta beraiek aipatutako ekintza zehatzak ez dira ekintza planean jaso euren iritziz. Ekintza planean orri erdi bakarrik hartzen duenez, kulturako zenbait eragileren ustez, kulturari duen baino pisu txikiagoa eman zaio.

Hauek dira planaren gainean jaso diren ekarpenak:

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: HERRITARREN ONGIZATEA BERMATUKO DUEN ETA HERRITARREN ARTEKO LANKIDETZAREN ZEIN ZAINTZAREN BALOREAK SUSTATZEN DITUEN GIZARTEA ERAIKITZEA

3.1. Jarduera programa: herritarrei eskainitako gizarte zerbitzuei eta prestazioei buruzko kalitatea hobetzea, horien eraginkortasunean sakonduz.

3.1.1 ekintza: Gizarte zerbitzuen arloan eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko bertara bideratutako baliabide pertsonal zein profesionalen hausnarketa egin eta baliabideak bideratu:

3.1.2 ekintza: 185/2015 Dekretua (gizarte zerbitzuei dagokiona) garatu.

3.1.3 ekintza: zaintza lanak balioan jarri eta langileen baldintzetan eragin.

3.2. Jarduera programa: herritarren osasuna hobetzeko eta menpekotasuna prebenitzeko baliabideak sendotzea

3.2.1 ekintza: menpekotasunaren aurrean eredu ezberdinak aztertu:

3.2.2 ekintza: zainzaileei prestakuntza eta ezagutza eskaini.

3.2.3 ekintza: menpekotasun maila arinei laguntzeko baliabide teknologikoak garatu.

3.2.4 ekintza: menpekotasunen prebentzio-plana garatu.

3.2.5 ekintza: menpekotasun egoeratik irten eta gizarteratze prozesuak bultzatu administrazio ezberdinekin elkarlanean.

Zaharren kontseilua sortzea, 3.adineko arazo eta beharrei ahotza emateko, era koordinatu eta sendotasunez eskaerak egin eta bideratzeko.

Zaintza arloko baloreak berreskuratzeko erroko ekimenak aurrera eramatea eta egun zaintzaz arduratzen diren emakume edota etorkinen lan baldintzak hobetzeko neurriak hartzea.

3.3. Jarduera programa: Herri integratzaile eta inklusiboa garatzea, herritarren aniztasun ezberdinak aintzat hartu, babestu eta ahalduzko lankidetzeta-sarea osatuko duena.

3.3.1 ekintza: harrera-plan integrala sortu.

3.3.2 ekintza: aniztasun/kulturartekotasun teknikari postua atera.

3.3.3 ekintza: kultura aniztasunaren gaineko azterketa egin eta kultura aniztasuna bultzatzeko plan bat garatu.

3.3.4 ekintza: adin, jatorri eta ezaugarri ezberdineko herritarrei begira, kultura ezberdinak elkarren artean ezagutzeko ekimenak antolatzea eta partekatzeko espazioak (fisikoak eta denborazkoak) sortzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko:

3.3.5 ekintza: ezberdin/berdinen taldeak autoidenfikatze prestakuntza eskaini, identitate konpartituak bilatu eta indartzeko bideak erakusteko.

3.3.6 ekintza: fiskalitate progresiboagoa egin, herritarren gaitasun/ahalmen ekonomikoen araberako "esfortzu" progresibo bat ezarri.

3.3.7 ekintza: aniztasun fisikoak aintzat hartzen dituen hiri irisgarriago bat prestatzeko politikak garatu.

3.3.8 ekintza: Bergara herri hezitzailea izateko aurrerapausoak ematea.

3.4. Jarduera programa: emakume eta gizonen berdintasunerako politika publiko eraginkorrak abiaraztea

3.4.1 ekintza: berdintasun-plana berrikusi eta bertan jasotakoak gauzatzeko baliabideak bideratu.

3.4.2 ekintza: berdintasun saila sortu eta beharrezko baliabideak bideratu ekimen zehatzak lantzeko.

3.4.3 ekintza: emakumeentzat erreferente izango den gunea sortu.

3.4.4 ekintza: berdintasuna normalizatzeko, beste arloetan barneratu (koordinatu) eta ezagutzera emateko etengabeko eskaintza sortu eta ezarri.

Bestelako ekarpenak:

Etxebizitza komunitarioak sortzea, udalerrian dauden etxe huts guztiak eskuragarri jartzea, alokairu sozialen bidez. Alokairuok ekonomikoki egoera zaurgarrian dauden herritarren eskura jartzea: etorkinak, gazteak...

Herri integratzailea: irabazi asmorik gabeko ekimenak aurrera eramatea (Mundumira, esaterako), ikastaro guztietarako (aisia, kirola, hezkuntza... edozein arlotakoak) dirulaguntzak

eskaintzea (horien baldintzak ez horren zorrotzak eta tramitazioa errazak izanik), baita horien bitartez integrazioa bilatzea ere.

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: GIZARTE EUSKALDUNA BERMATZEA ETA KULTURA-, KIROLA- ETA HEZKUNTZA- SORKUNTZA ZEIN ESKAINTZA ZABALA SUSTATZEA, ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUTAKOA

4.1. Jarduera programa: eremu eta gune ezberdinetan euskararen erabilera indartzea eta suspertzea, tresna positibo, integratzaile eta inklusibo gisa, herriko eragile eta entitateen arteko harremana euskaldunduz.

4.1.1 ekintza: herritarren arteko euskarazko harremana sustatzea, ez soilik euskalduntzea.

4.1.2 ekintza: arnagune garela indartu, zaindu eta zabaldu.

Guraso-seme-alaba harreman-guneetan eragitea beharrezkoa da.

Komunikabide eta sare sozialen baitan euskal erreferenteak izatea ezinbestekoa da eta baita euskarazko eduki interesgarriak sortzea ere.

4.1.3 ekintza: inklusioa helburu, etorkinei euskara gerturatzeko ekimenak sustatzea.

Euskara auzoetan lantzea garrantzitsua da, etorkinek bizitza herrigunean baino, bizi diren auzoetan egiten baitute.

4.1.5 ekintza: euskara ikastea doako bihurtu.

4.1.6 ekintza: digitalizatorako bidean euskararen gaia aintzat hartu atzera ez egiteko.

4.2. Jarduera programa: hezkuntzarako, kultura, kirol eta aisiarako azpiegitura eta baliabideak hobetzea eta sendotzea

4.2.1 ekintza: elkarteei eta bestelako eragileei behar dituzten espazioak eta baliabideak erraztu eta laguntza eskaini:

Ikastaroetan izena emateko eta kultura kontsumitzeko zailtasuna dutenei diruz laguntzea (prezio sozialak, bonuak...).

Kultur ekintzak eskaintzeko espazio gehiago eskaini eta egokitzea, adibidez, frontoia akustikoki moldatzea, egun dauden lokalak konpondu edota eskaini Arrizuriaga eta bestelako eraikinen antolaketa berriaren zain egon gabe, Arrasateko Monterron bezalako ereduak kontuan izatea, etab.

Gizarte arloan (eta kulturaren) boluntario moduan aritzen diren talde eragileen lana aitortzeaz gain, horiek diruz laguntzea, horretarako baldintzak eta izapideak arinduz.

4.2.2 ekintza: Udaleko kultura zerbitzuak Arrizuriagara bideratzea.

Herrian dauden beste eraikin batzuen artean aztertu beharko da zein litzatekeen egokiena eragileen arteko espazio amankomun modura erabiltzeko.

4.2.3 ekintza: Arrizuriaga eraikinaren kanpoaldeko parkeko eremuari izaera edo kutxu kulturala ematea:

Arrizuriagako parkea jolas askera bideratzea, naturan jolasteko aukerak emanez.

4.2.4 ekintza: kirol instalazioak egokitzeko inbertsioen plangintza egin:

4.2.5 ekintza: kirolletako plan estrategikoa (2022-2025) garatu.

4.2.6 ekintza: auzoetan kirol praktika errazteko eta sustatzeko hausnarketa eta plana garatu.

Beste era batera formulatuko lukete: “4.2.6 ekintza: Kanpoko auzoetan (Osintxu, Angiozar,.....) kirol praktika errazteko eta sustatzeko hausnarketa eta plana garatu”.

Kanpoko auzoak bezala zehaztea komen da (Osintxu, Angiozar....), hauetan arazoak baitaude, kasu gehienetan frontoia soilik dagoelako eta besterik ez. Gainera frontoira jolastera joaten bazara bertako umeak frontoian jolasteari uzten dute eta joaten denari frontoia lagatzen diote.

4.2.7 ekintza: aisia-eskaintza hobetzeko eta aisiarako guneak inklusiboak eta integratzaileak izateko baliabideak eskaini:

Monitore/entrenatzaileen kontzientzia hezitzailea garatzea, balore ezberdinetan prestakuntza eskainiz.

Kirol munduan emakumearen partaidetza bultzatu.

Aniztasun funtzionala duten ikasleak aintzat hartu behar dira, ekimen eta proiektuetan alde batera utzi gabe, hauekiko ere egiten delako segregazioa (Aspace ez dago hezkuntza guneetan baneraturuta). Beraientzat diren guneak ez dira bereiztu behar, beste ikasleei ematen zaizkien aukerak eskaini behar zaizkie.

Aspacetik beraien ikasleen integrazioa bermatzeko urte osoan zehar gainontzeko hezkuntza eta kultura eragileekin elkarrekintza bultzatzeko plangintza eskatzen dute. Lehen fase batean elkar ezagutza bultzatuz, bigarren fase batean inklusiorako pausuak eman, etab.

Nerabeentzako aisialdian hutsune handia dago, hau aztertu eta irtenbide bat bilatu beharko litzateke.

Bestelako azalpenak (Kirol elkarten aldetik): Polikiroldegian gela bat dago eta hau kirol elkarte edo taldeek erreserbatzeko aukera dute baina gela hau elkartzeko leku bat da, bertan ezin dute lanik egin. Elkarte bakoitzaren dokumentazioa eta bestelako baliabideak direktibakoek beraien etxeetan gordeta dituzte.

Elkarte edo talde bakoitzarentzat gela bat eskatzen dute, bertan lan egiteko aukera izango dutelako eta beraien materiala/baliabideak gordetzeko ere erabiliko dutelako.

Mendi elkarteak bere lokala erostea erabaki zuten. Lokala sekzio ezberdinetan dute banaturta eta beraien gauzak gordetzeko lekua ere badute.

Edozein jardura antolatzeko administrazioak asko moteltzen du prozesua eta honela, egun gutxitako epearekin ezin dira jarduerak antolatu. Adb.: hitzaldiak, erakusketak,..... Hauek antolatzeko gune asko ez daude eta gainera segituan okupatzen dira.

Pizina zaharra askoz hobea zen, berriarekin ez omen dago inor gustura.

Direktibako kideak erantzukizun oso handia dute. Edozein istripu edo arazo gertatzen bada beraien gain erortzen da hau eta ondorioz, direktibatan parte hartzeko bolondres oso gutxi daude.

4.3. Jardura programa: eragile ezberdinen arteko hartu-emana eta elkarlana bultzatzea (ikastetxeen arteko erlazioa, herriko elkarteen arteko erlazioa, etab. landu, elkarrekiko komunikazioa hobetu eta elkarlanean aritu, proiektuak amankomunean jarri eta sinbiosian lan egiteko).

4.3.1 ekintza: elkartegintza zaindu eta babestea:

4.3.2 ekintza: eragile askoren partaidetza eskatzen duten ekintzak diseinatu, koordinatu eta antolatu, elkarlana egitasmoetan gauza dadin.

Eragile ezberdinen arteko elkarrekintza sendotzen laguntzea, ez soilik espazio aldetik, baita etengabeko komunikazioa bideratzea, sinergiak gauzatzeko.

4.3.3 ekintza: hezkuntzako sare ezberdinak gaituzten eremuak zein ekimenak sortu, elkarlana sustatzeko:

Hezkuntza aro berrietara egokitu beharrean dago eta hezkuntza eredu berrietara irekitzea garrantzitsua da.

Ekintza zehatza proposatzen da: Hezkuntza batzordea irekitzea, eragile berriak barneratu eta gai berriak lantzen hasteko: kirol elkarteak, ingurumen elkarteak, Aspace, azoka, etab.

“Herri curriculum” lantzea proposatzen da, euskara barnean hartuz baina aholkularitza- enpresako kideak adierazi dio aurreko bileran egindako proposamen hori [dagoeneko badago gaurko bilerara etorri diren herritarrei banatu zaien Planaren zirriborroan \(bai 4.1.2 ekintzako jardura moduan jasota zein 4.3.3 ekintzaren jardura moduan ere\).](#)

4.3.4 ekintza: segregazioari aurre egiteko plana garatu:

Bergaran dauden ikastetxe nahiz elkarte denak kontuan hartzea eta elkarrekintza-aukerak lantzea.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: HERRIGINTZA ETA GOBERNANTZA UZTARTUZ, BERGARA INKLUSIBOA BILAKATZEA

5.1. Jardura programa: gobernantza eta partaidetza eredu berri baterako lan egitea

5.1.1 ekintza: kudeaketa-eredu ezberdinak aztertu (gobernantza ereduak) eta sorkuntza zein herritartasuna sustatzeko espazio ireki/irisgarriak sortu:

5.1.2 ekintza: mahai sektorialak edo gaikako aholku-kontseiluak sortu beharrean, partaidetzarako organo egonkor bakarra aztertu, herritarren ordezkartza izango lukeena.

Organo egonkorra sortu eta mantentzea ez da erraza. Hala ere, proiektu eta gaiaren arabera interesgarria litzateke organo egonkorretik gaikako mahaiak sortzea.

Haurrei hitza eman behar zaie herritartasunaren baitan.

5.2. Jarduera programa: Herritarren eta udalaren arteko komunikazio eta harremanak aldebikoak izateko lanketa burutzea.

5.2.1 ekintza: herritarrei teknologia berriek eskaintzen dituzten kanalak eskura jartzea Udalarekiko harremana errazteko.

Ekintza berri hau proposatu da: Herritarrentzat hilabetean behin Udaleko politiko eta teknikariek bilera digitalak antolatu. Aholkularitza enpresaren ustez, ekintza baino 5.2.1 ekintzaren barneko [jarduera bat izango litzateke](#).

Herritarren eta Udalaren arteko harremanak hobetu beharra daude. Udaleko zinegotzi edo teknikari batekin hitz egin nahi bada filtro asko pasa beharra daude.

Herritarrak politiko /teknikariek elkartzeko aukera izan dezaten, hilabetero egun batzuk jarri eta bilera digitalak egin. [Hau ere 5.2.1 ekintzaren jarduera bat izango litzateke](#).

5.2.2 ekintza: digitalizazio bidean aurrez aurreko kanalak ez ahaztea eta zaintzea.

5.2.3 ekintza: herritik kanpo bizi diren bergararrak presente izatea euren potentzialitatea baliatzeko eta herritarrekiko lotura sendotzeko.

5.2.4 ekintza: harrera-protokoloa landu, aberastu eta hobetzea.

5.3. Jarduera programa: Bergarako garapen-eredu jasangarriaren aldeko komunikazio-, sentsibilizazio-, trebakuntza- eta partaidetza-egitasmoak garatzea.

5.3.1 ekintza: Eskola Agenda 2030eko ekintza batzuk plan estrategikoan txertatzea.

5.3.2 ekintza: Kontzientzia komunitarioa sustatzeko nahiz errotzeko egitasmoak antolatu, elkar laguntzeko eta solidaritatea bultzatzeko:

Musika, ilustrazio, marrazkigintza... arloan, lan handia egiten da eta inguruan baino partaide kopuru eta kalitate handiagoa dago. Ekipamendu eta potentzial ugari ere badago: Laboratorium, Aroztegia... Horiek balioan jarri eta indartzeko baliabideak, ekimenak edo planak egitea.

Ekintza zehatzak aipatzea falta da. Aholkularitza enpresaren ustetan, [horiek jarduerak lirateke](#). [Hau da, ekintzak burutzen laguntzen duten proiektu, ekimen, zehatzak lirateke jarduerak](#).

Eragileen partaidetza bilatzea eta horretarako euren beharrak kontsultatu nahiz asetzea.

Auzolana bultzatu (kulturan ere bai), solidaritate eta enpatia baloreak sustatu.

Herritarren partaidetza aktibatu, herritarren arteko sozializazioa sustatu, individualismoaren aurka. Aholkularitza-enpresaren ikuspuntua: hau ekintza baino, helburua litzateke eta 5.3. Jarduera-programan, "partaidetza-egitasmoak garatzea"n barneratuta dagoela ulertzen da. Edonola ere, proposamen hori bat dator 5.3.2 ekintzaren izenburuarekin.

Saioaren bigarren zatiaren helburua gertuko etorkizunean ezinbesteko garrantzia izanik lehenetsi beharreko ekintzak identifikatzea izan da. **Hona hemen jarduera programa batzuetan (industria sektoreari loturikoak) lehenetsi diren ekintzak:**

3. HELBURU ESTRATEGIKOAREN gainean egin diren ondorengo ekarpenak lehenetsi dira:

Zaharren kontseilua sortzea, 3. adineko arazo eta beharrei ahotza emateko, era koordinatu eta sendotasunez eskaerak egin eta bideratzeko.

Zaintza arloko baloreak berreskuratzeko erroko ekimenak aurrera eramatea eta egun zaintzaz arduratzen diren emakume edota etorkinen lan baldintzak hobetzeko neurriak hartzea.

Etxebizitza komunitarioak sortzea, udalerrian dauden etxe huts guztiak eskuragarri jartzea, alokairu sozialen bidez. Alokairuok ekonomikoki egoera zaugarrian dauden herritarren eskura jartzea: etorkinak, gazteak...

4.1. Jarduera programa: eremu eta gune ezberdinetan euskararen erabilera indartzea eta suspertzea, tresna positibo, integratzaile eta inklusibo gisa, herriko eragile eta entitateen arteko harremana euskaldunduz

4.1.1 ekintza: herritarren arteko euskarazko harremana sustatzea, ez soilik euskalduntzea

4.1.2 ekintza: arnasmune garelara indartu, zaindu eta zabaldu.

4.1.3 ekintza: inklusioa helburu, etorkinei euskara gerturatzeko ekimenak sustatzea.

4.2. Jarduera programa: hezkuntzarako, kultura, kirol eta aisiarako azpiegitura eta baliabideak hobetzea eta sendotzea

4.2.1 ekintza: elkarteei eta bestelako eragileei behar dituzten espazioak eta baliabideak erraztu eta laguntza eskaini

4.2.2 ekintza: Udaleko kultura zerbitzuak Arrizuriagara bideratzea.

4.2.3 ekintza: Arrizuriaga eraikinaren kanpoaldeko parkeko eremuari izaera edo kutxu kulturala ematea:

4.2.4 ekintza: kirol instalazioak egokitzeko inbertsioen plangintza egin

4.2.6 ekintza: Kanpoko auzoetan kirol praktika errazteko eta sustatzeko hausnarketa eta plana garatu

4.2.7 ekintza: aisia-eskaintza hobetzeko eta aisiarako guneak inklusiboak eta integratzaileak izateko baliabideak eskaini

4.3. Jarduera programa: eragile ezberdinen arteko hartu-emana eta elkarlana bultzatzea (ikastetxeen arteko erlazioa, herriko elkarleen arteko erlazioa, etab. landu, elkarrekiko komunikazioa hobetu eta elkarlanean aritu, proiektuak amankomunean jarri eta sinbiosian lan egiteko).

4.3.1 ekintza: elkartegintza zaindu eta babestea

4.3.3 ekintza: hezkuntzako sare ezberdinak gaitutuko dituzten eremuak zein ekimenak sortu, elkarlana sustatzeko

4.3.4 ekintza: segregazioari aurre egiteko plana garatu.

Ekintza zehatza proposatzen da: Hezkuntza batzordea irekitzea, eragile berriak barneratu eta gai berriak lantzen hasteko: kirol elkarteak, ingurumen elkarteak, Aspace, azoka, etab. Aholkularitza-enpresaren ustez ekintza baino jarduera bat izango litzateke eta bere tokia 4.3.3 ekintza izan daiteke.

5.1. Jarduera programa: gobernantza eta partaidetza eredu berri baterako lan egitea

5.1.1 ekintza: kudeaketa-eredu ezberdinak aztertu (governantza ereduak) eta sorkuntza zein herritartasuna sustatzeko espazio ireki/irisgarriak sortu.

5.1.2 ekintza: mahai sektorialak edo gaikako aholku-kontseiluak sortu beharreen, partaidetzarako organo egonkor bakarra aztertu, herritarren ordezkartza izango lukeena.

5.2. Jarduera programa: Herritarren eta udalaren arteko komunikazio eta harremanak aldebikoak izateko lanketa burutzea *

* Programa osoa garatu beharrekoa dela esan zuten, ekintza bakarra ez zuten aukeratu nahi. Hau da, lehenetsun altua lukete bere baitako ekintza guztiek.

Saioari amaiera eman aurretik, aholkularitza-enpresako kideek herritarrekin antolatuko den hurrengo saioa uda ondoren antolatuko den herri-batzarra izango dela aipatu dute. Udaran zehar Udalak Plan Estrategiko Jasangarria landuko duela eta udara ondoren herri-batzarrean planaren aurkezpena egingo dela adierazi dute. Edozein kasutan, akta bidaltzean ekarpen gehigarriak egiteko aukera irekita dagoela ere azaldu dute.

Honenbestez, parte-hartze saioa 20:00etan amaitu da.